



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Egon zain”

2020ko azaroaren 29
Abenduko 1. igandea (B)

Marko 13, 33-37

“Kontuz, bada! Egon erne! Ez baitakizue ordua noiz den. Gizon bat urrutira doanean bezala da: morroien gain uzten du bere etxea, bakoitzari bere lana emanez, eta zain egoteko agintzen dio atezainari.

Egon zain, beraz, ez baitakizue etxeke jauna noiz etorriko den: arratsean, gauerdian, oilarrak jotzean ala goizean. Ez zaitzatela ustekabeen etorri eta lotan aurki. Zuei esaten dizuedan hau, denentzat esaten dut: Egon zain!”

Iratzarririk egon, ba, ugazaba noiz etorriko dan ez dakizue-ta. Ordua bat batean izango dalako, zoli egon beharra dago.

ELIZA ESNARAZI

Jose Antonio Pagola

Lehen kristau-belaunaldiek ezin kendu zuten burutik Jesus laster batean etorriko zela. Piztua zen hura ezin atzeratu zitekeen. Hartarainokoa zuten harekiko irrika, ahalik arinen egin nahi baitzuten harekin topo. Denbora bazihola eta Jauna ez zetorrela ikustean sortu ziren arazoak.

Laster konturatu ziren, ezen atzeratze hark herio-arriskua zuela berekin. Hasiera hartako sua itzaliko zen arriskua. Denbora joan ahala, elkarte txiki haiek pixkana axolagabe bihurtu zitezkeen, eta guztiaz ahaztu. Gauza bat zuten buruan: «Kristok, iristean, ez gaitzala lo aurkitu».

Zain egotea zuten hitz giltzarri. Etengabe errepikatzen dute ebanjelioek: «**zain egon**», «**erne egon**», «**adi egon**», «**esna egon**». Markoren arabera, Jesusen agindua ez doakie entzuten dioten ikasleei bakarrik. «*Zuei diotsuedana guztiei diotset: egon erne*» (Zuei esana guztiei esana da: egon erne). Ez da dei huts bat gehiago. Aldi guztietako Jesusen jarraitzaile guztiei doakien agindua da.

Joanak dira kristautasunaren hogeita hamar mende. Zertan da Jesusen agindu hori? Nola bizi gara gaur egungo kristauok? Esna jarraitzen ote? Bizirik jarraitzen ote gure fedea ala itzaliz joan da, axola-gabeziara eta geldotasunera joz?

Ez ote da ageri bihotz berri baten beharrea dela Eliza? Ez ote dugu sumatzen geure geldotasunari eta auto-engainuari astindu bat eman beharrea garelako? Ez ote dugu hasi behar Elizan den gauzarik onen hori iratzartzen? Ez ote genuke biziberritu behar fededun xume guztien sinesmen umil eta garbi hori?

Ez ote genuke berreskuratu behar erakartzen, dei egiten, interpelatu eta esnarazten duen Jesusen aurpegi bizi hura? Nolatan segi genezake Kristoz hainbeste hitz egiten, idazten eta eztabaidatzen, hark liluratu eta pixka bat eralda gaitzan utzi gabe? Ez al gara konturatzen Jesukristok liluratzen ez duen eta bihotza ukitzen ez dion eta «lo dagoen» Eliza batek ez duela etorkizunik, itzaliz eta zaharkituz joanen dela bizi-arnasaren faltaz?

Ez al dugu sentitzen esnatu eta Jesusekiko geure harremanak biziarazi beharra? **Beste zeinek iratzar lezake gure kristautasuna mugimendu-falta horretatik, zurruntasunetik, iraganaren zamatik, sormen-faltatik?** Zeinek kutsa diezaguke bere alaitasuna? Zeinek eman diezaguke bere indar kreatzailea, bere bizitasuna?